



**Ikastaroa: kamiseta tindaketa**  
**Azaroaren 18, 25 eta abenduaren 2an, 18.30etatik 20:30etara**  
**Ordiziako Barrena Kultur Etxean**  
**Hitzaro euskara Elkarteak eta Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta**  
**Matrikula: 18 euro**  
**Matrikulatzeko azken eguna: azaroak 13**

## **Kamisetak eta oihalak tindatzen**

Azaroaren 18 eta 25ean eta abenduaren 2ean, *Kamiseta eta oihal tindaketa* ikastaroa izango da Ordizian, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Hitzaro Euskara Elkarteak elkarlanean antolatuta, EBPNren (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) barruan. Amaia Oar-Arteta irakasleak emango du ikastaroa, Barrena Kultur Etxean, 18:30etatik 20:30etara.

Kamisetak, zapatilak, mahai-zapiak, kuxinak, mantalak eta bestelako oihalak tindatzeko teknika ezberdinak erabiliko dira ikastaroan; esate baterako, kalkatuta, tanpoia erabilita, txantilioiz... Oihalak norberak eraman beharko ditu ikastarora.

Ikastaroak 18,00 euroko matrikula du; 16€koa Hitzaroko kide, mintzalagun eta euskara ikasleen kasuan. Ikastaroan 16 urtetik gorakoek har dezakete parte, eta gehienez ere 12 lagun onartuko dira. Hil honen 13an itxiko da ikastaroan izena emateko epea. Izen-ematea, Herritarren Arretarako Udal Bulegoan edota Hitzaroko egoitzan (Milagrosa ikastetxea izandakoa) egin behar da.

GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOA  
OFICINA DE INFORMACIÓN JUVENIL  
Barrena Jauregia, z/g 20240 Ordizia  
Tef: 943 80 56 34, [e-mail: gazteria@ordizia.org](mailto:gazteria@ordizia.org)

**Sormen tailerrak.** Udalak eta Hitzarok martxan jarritako sormen tailerrak bosgarren ediziora iritsi dira ikasturte honetan. “Sortu zirenean, ikastaro eskaintza txikia zegoen oro har herrian eta eskualdean, bai euskaraz bai gaztelaniaz, eta arrakasta izan dute tailerrek: hamar ikasle aritu dira batuz beste tailerreko. Horietako asko herritik kanpotik etorriak”, baloratu du Ordiziako Udaleko euskara teknikariak.

Hona hemen orain artean Udalak eta Hitzarok antolatu dituzten ikastaroak: hennazko tatuaiak, perkusio afrikarra, tai chi-a, makillajea, joskintza, abalorioak, udaberriko eta eguberrietako postreak, eguneroko bazkariak eta sendabelarrak.